

## \* Nafarroako Gobernuaren iritziz osasun arloko gastua kontrolatu egin behar da

1993ko txostenaren arabera, Espainiako Estatukoa baino % 12 handiagoa da

**N**afarroan osasun arloko gastuak kontrolatzeko premia dagoela nabarmendu zuen atzo Gobernuak. Nafarroan osasun gastua Espainiako Estatukoa baino % 12,2 handiagoa da, 1993ko osasun gastuei buruz egindako ikerketa baten arabera. Halaber, aurrekontuaren % 16 botika prestazioek jaten dute, eta jubilatuak dira gehien erabiltzen dutenak zerbitzu hori.

Irene Arrizurieta / Iruñea

NAFARROAKO GOBERNUAK 1993ko osasun gastua Nafarroan eta Botika prestazioa Foru Komunitatean eta Osasun Sistema Nazionalean txostenak plazaratu zituen atzo. Osasun gastuei buruz Ander Arrazolak egindako ikerketak jasotzen duenez, 1993an ia 74.000 milioi pezeta gastatu ziren (2.960 milioi libera). Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 7,85 hain zuzen ere. Datuok, Ekonomi Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea (OCDE) osatzen duten herrialdeen antzekoak dira. Batez beste, biztanleriaren osasun arloko gastua 139.000 pezeta ingurukoa izan zen. Eta Espainiarekin erkatuz gero, herrialdeko osasun gastua % 12,1 handiagoa izan da.

Alabaina, aipatu ikerketak 1984tik 1993ra bitartean osasun arloan izan diren gastuek izan duten bilakaera bildu du. Bederatzi urteotan nabarmen igo da, 22.541 milioi pezetatik 73.376 milioi pezetara. Horrek esan nahi du gastua % 85,9 igo dela.

Aurkezpenean Santiago Cervera Osasun sailburuak gastua kontrolatzeko beharra azpimarratu zuen, kontrolik gabeko igoera batek «osasuna guztiontzat doan eta eskubide berberekin» izateko aukera zapuztuko lukeelako.

Osasun arloko gastuak ezezik, botiken prestazioa ere ikertu du Gobernuaren izenean Javier Carnicerok. Bestek beste, boti-



Iruñeko Virgen del Camino ospitalea. JOXE LACALLE

ketako prestazioak eta horrek azken urteotan eragindako gastua ez igotzeko hartutako neurrien berri ematen du. Carnicerok atzo errandakoaren arabera, bai Nafarroan eta bai Espainian zerbitzuak sortzen dituen gastuak urtez urte gorantz doaz, eta egoera gero eta kezkaigarriagoa da. Ikertzaileak 1995eko datuak hartu ditu aintzat; eta Osasunbideak osasun aurrekontuaren % 16 gastatu zuen botiketean.

Hala ere, Espainiako egoerarekin alderatzen badugu, gastua txikiagoa da, han kasik % 21ekoa izan baitzen. Carniceroren arabera, aipatu portzentaiak 1993an lortutakoekin konparatzen baditugu (% 15 Nafarroan eta % 17 Espainian) egoera «kezkaigarria» da, gastua kontrolatzeko politika ezarri arren ez zaiolako behar bezalako erantzuna ematen. Gainera, jubilatuak biztanleriaren % 24 izan

arren botiken gastuen % 75 eragiten dutela aintzat hartuz, botiken beharra gora doala dio txostenak. Beraz, gastuak jaitea ezinezkoa izanen da, biztanleria gero eta zaharragoa delako eta botiken prezioa gora doalako, produktu berriak eta garestiagoak merkaturatzen baitira. Beraz, Carniceroren irudikoz, Administrazioak eginahal berezia egin behar du hori guztia kontrolatzeko. X

Osasun arloko erreformak «segurtasun eza» ekarriko die langileei, UAren ustez

«Aldaketak Osakidetzako lan guztiengan izan behar du eragina»

Efe / Gasteiz

EUSKO JAURLARITZAN Osasun Saila prestatzen den erreformak «segurtasun eza ekarriko die Osakidetzako langile guztiei», Unidad Alavak (UA) Pablo Mosqueraren ustez. «Osakidetzako langileen marko juridikoan oinarritzen da erreforma. Horretarako Osakidetzako langile guztiengan izango du eragina. Esaterako, soldatetan eta mugikortasun funtzional eta geografikoan izango du eragina erreformak», Mosquerak salatu duenez.

Uda baino lehen onartuko den erreformak «Osakidetzako egitura gorenaren esku uzten ditu erabaki guztiak», esan du UAkoak. Horrek Legebiltzarren zeregina «murrizten du». Osakidetzan lan egiten duten 22.000 langileen lan baldintzak «aldatzea» da erreformaren helburua, Mosqueraren ustez, eta «atzerapauso handia» dela dio. X

Madriren homofobiaren aurka egingo den manifestaziorako atxikimenduak biltzen ari dira

Erredakzioa / Donostia

OTSAILAREN 22an homofobiaren kontrako manifestazio handia egingo da Madriren, Espainiako Estatuko gay eta lesbiana talde gehientsuenek antolatuta. *Homofobiari utikan!* eta *Bai Bikotearen Lege horri!* dira protesta horretarako aukeratu dituzten leloak. Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimenduak (EHGAM) eta Gipuzkoako Lesbianen Kolektiboak (GLK) bat egin dute ekimenarekin, eta bat egiteaz gainera, gizarteko osterantzeko talde eta pertsonen atxikimenduak biltzen ari dira.

Halaber, otsailaren 22ko manifestazioaren bidez salatu nahi dituzten egoerak eta egin nahi dituzten aldarrikapenak plazaratu dituzte EHGAM eta GLK-k. Bestek beste, Espainiako Estatuan azkenaldion jazotako gertaera homofobiko guztiak salatu nahi dituzte, hala nola, Sevillako *Army kasua*, edota Valentziako Gayen Asanbleako irratian jasotako bonba mehatxua. Era berean, hezkuntzako estamentuetan transexual, lesbiana eta gay taldeen errealitateari «erantzen zaion difamazio eta isiltasuna» salatu nahi dute, eta gune publikoetan adierazpen afektiboak egiteko askatasuna eskatu. X



### LEGAZPIKO UDALA

Indarrean dagoen legeak eskaintzen dizkidan ahalmenak erabiliz, zera

DEKRETATZEN DUT:

- 1.- "GKN-Forjas de Precisión de Legazpia S.A." enpresak eskatutako 51-1 Arearen Zehaztapen Azterlanaren aldateta partziala hasiera batean onartzea.
- 2.- Erabakia GAOean eta herrialdeko egunkari irakurrietako batean argitaratzea.
- 3.- Azken argitalpenaren biharamunetik hasi eta 15 eguneko epean espedientea jendaurrean jartzea, hura aztertu eta bidezko alegazioak aurkeztu ahal daitezen.

Legazpi, 1.997ko urtarrilak 28.  
ALKATEAK.



### LEGAZPIKO UDALA

Indarrean dagoen legeak eskaintzen dizkidan ahalmenak erabiliz, zera

DEKRETATZEN DUT:

- 1.- "Construcciones Hijos de Juan Cruz Mendiola, S.A." enpresak eskatutako 51-1 Arearen Zehaztapen Azterlanaren aldateta partziala hasiera batean onartzea.
- 2.- Erabakia GAOean eta herrialdeko egunkari irakurrietako batean argitaratzea.
- 3.- Azken argitalpenaren biharamunetik hasi eta 15 eguneko epean espedientea jendaurrean jartzea, hura aztertu eta bidezko alegazioak aurkeztu ahal daitezen.

Legazpi, 1.997ko otsailak 4.  
ALKATEAK.